



BAZTANGO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO BILKURA AKTA: 2011/12/22

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN EL DÍA 22/12/2011

2011ko abenduaren 22an goizeko 11:30ean Baztango Udalak Tokiko Gobernu Batzordea ohiko eta lehenengo deian osatu zuen arauzko moduan deitu ondotik. **GARBINE ELIZEGI** alkatea mahaiburu izanik eta ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

*En Elizondo y casa consistorial, siendo las 11:30 horas del día 22 de diciembre de 2011, se reúne el Ayuntamiento de Baztan constituido en Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria y primera convocatoria, tras haber sido convocada la misma en forma legal. Presidida por la Alcaldesa-Presidenta **GARBINE ELIZEGI** y con la asistencia de los siguientes concejales:*

- .- **MIKEL ORTEGA**
- .- **IÑIGO ITURRALDE**
- .- **FLORENTINO GOÑI**
- .- **PELLO IRIARTE**

Ez dira bertaratu.

No han asistido:

Eta artatuz, udal idazkaria Iulen Urbiola Loiarde.

Asistiendo como Secretario, el titular de la Corporación, D. Iulen Urbiola Loiarde

1.- AURREKO AKTA

Alkateak bilkurari hasiera eman ondotik, Tokiko Gobernu Batzordeak 2011ko abenduaren 16ko akta baieztatzen du.

Tras dar inicio la Alcaldesa a la reunión la Junta de Gobierno Local ratifica el acta de 16 de diciembre de 2011.

2.- ALKATEAREN EBAZPENA

Alkateak ondoko ebazpena jakinarazten du eta Tokiko Gobernu Batzordeak onartu egin du:

MIRIAM BARBERENA IBARRA eta IÑIGO ALZUGUREN ARNIS -ek, 2011/05/09an, Zigako 76. poligonoko 310. lursaileko etxebizitza bakarraren erabilera baimena eskatu zuten. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (Errf: 1112i003) ikusirik eta eskaera indarrean dagoen araudiarekin eta Baztango udal plangintzarekin kontra egiten ez duelarik ustez, honakoa ebazten dut:

- 1.- Baimena ematea,
- 2.- Ordaindu beharreko tasa: 178,16 eurotako da.
- 3.- Eskatzaileei Erref. 1112i003 txostena bidaltzea.
- 4.- Akordio hau interesatuari helarazi bere ezaguera eta ondorioetarako.

Alcaldía da a conocer la siguiente resolución de alcaldía que la Junta de Gobierno Local confirma:

Con fecha de 9/05/2011. MIRIAM BARBERENA IBARRA e IÑIGO ALZUGUREN ARNIS, solicitaron licencia de primera ocupación para una vivienda unifamiliar sita en la parcela 310 del polígono 76 de Ziga. Teniendo en cuenta el informe del Técnico municipal en urbanismo (Ref. 1112i003), considerándose conforme con las determinaciones al efecto contenidas en el Plan Municipal de Baztan, así como con las disposiciones legales vigentes aplicables, dispongo:

- 1.- Conceder la preceptiva licencia de primera ocupación
- 2.- Tasa a abonar: 178,16 euros
- 3.- Remitir el informe de Ref. 1112i003 a los solicitantes.
- 4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

3.- HIRIGINTZA

Ez dago tratatzeko espedienterik

[Handwritten signature]



4.-ESKAERAK

ABALA

2011/11/23an MATORTRIP SL izenean hiltegiako ekipamenduaren abala bueltatzea eskatu dute. Ingenieria Navarra Proyectos SL-ren ziurtagiria ikusirik eta kontu-hartzailearekin kontsultatu eta gero Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du eskatutako abala bueltatzea.

En nombre de MATORTRIP SL con fecha 23/11/2011 solicitó la devolución del aval correspondiente al equipamiento del matadero municipal. Visto el certificado emitido por Ingeniería Navarra Proyectos SL y consultada la interventora, la Junta de Gobierno Local acuerda la devolución del solicitado.

JOSU AGERRE IRAOLA

JOSU AGERRE IRAOLA-k 2011/12/15eko datarekin (E.Z. 3785/2011) Almandozko eskola zaharreko goiko gelak erabiltzen ez direnez horietako bat aprobetxatzea eskatu du herriko gazteen izenean. Eskaera ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak eskatutako etxearen egoera juridikoa zein den jakin arte ez du erabakirik hartuko. Akordio hau interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

JOSU AGERRE IRAOLA con fecha de 15/12/2011 (E.R. 3785/2011) ha solicitado el aprovechamiento de uno de los cuartos que están en desuso de la vieja escuela de Almandoz para los jóvenes. Vista la solicitud la Junta de Gobierno Local no va a tomar acuerdo alguno hasta conocer la situación jurídica de la casa. Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

CONSTRUCCIONES HIJOS P. BENGOETXEA

CONSTRUCCIONES HIJOS P. BENGOETXEA-ren izenean 2011/12/12ko datarekin (E.Z. 3739/2011) Zubiondoko pisuetako jardinean egin dituen lanak udalak ordaintzea eskatzen da. Eskaera ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera ez onartzea aipatutako fakturaren lanak eskatzaileari ordaintzea dagozkiolako udalak zesioa jaso arte.
- 2.- Akordio hau interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

En nombre de CONSTRUCCIONES HIJOS P. BENGOETXEA con fecha de 12/12/2011 (E.R. 3739/2011) se ha solicitado el abono de los trabajos realizados en los jardines de los pisos de Zubiondo. Vista la solicitud la Junta de Gobierno Local ha acordado:

- 1- Denegar la solicitud debido a que los trabajos recogidos en la factura son responsabilidad del solicitante hasta la recepción de la cesión por parte del Ayuntamiento
- 2-Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

LOIZU HILTEGIA

JOSE ANTONIO ETXEBERRIA eta **ANDRES ELIZAINCIN** Loizu Hiltegia SL-ren izenean hiltegiaren 2011ko kanonaren oinarria 6 hilabetekoa izatea eskatzen dute eta ez 7 hilabetekoa udalak igorri dien bezala. Lanean, gas eta elektrizitate hornidura falta zela eta uztailan eta ez ekainean hasi ziren eta hortaz hilabete baten kitapena eskatzen dute. Eskaera ikusirik eta jakinda atzerapena hiltegiaren kudeatzaileei ezin zaiela leporatu, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera baimentzea.
- 2.- Akordio hau kontu-hartzaileari eta interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako

JOSÉ ANTONIO ETXEBERRIA y ANDRÉS ELIZAINCIN solicitan en representación de Loizu Hiltegia, S.L., que la base del canon del 2011 sea de 6 meses y no de 7, como les ha remitido el Ayuntamiento. Debido a la falta de suministro de gas y electricidad comenzaron a trabajar en julio y no en junio, por lo que solicitan que se les exima de un mes. Vista la solicitud y teniendo en cuenta que el retraso no puede imputárseles a los gestores del matadero, la Junta de Gobierno Local ha resuelto:

- 1.- Conceder lo solicitado.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a la Interventora municipal y a los interesados, para su conocimiento y efectos oportunos.

5.- BESTEAK

IÑIGO ITURRALDE ZINEGOTZIAK. KIROLA

Baztan Ikastola

Iñigo Iturralde Zinegotziak Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazki batean Manolo Lizardik, Baztan Ikastolako guraso elkartearen izenean egindako eskaeraren berri jakinarazten du. Bertan, 2011ko abenduaren 18an, Elizondon, Eguberrietako Krossa antolatzeke laguntza (baimena, hesia krossaren ibilbidea trafikotik babesteko, Udaltzaingoaren laguntza trafikoa kontrolatzeko eta dirulaguntza 710,20 €) eskatzen da. Eskaera behin aztertuta Tokiko Gobernu Batzordeak onartzea erabaki du. Akordio hau Iñigo Iturralde Zinegotziari, Baztan Ikastola Guraso Elkarteari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

El Concejal Iñigo Iturralde en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local da cuenta de la solicitud presentada por Manolo Lizardi en representación de la Asociación de Padres y Madres de Baztan Ikastola. En la misma solicita ayuda para la organización del cross navideño que se celebrará el 18 de diciembre (autorización, vallas para proteger el trayecto del tráfico, colaboración de la policía municipal para el control del tráfico y ayuda económica de 710,20 €). Examinada la solicitud la Junta de Gobierno Local resuelve conceder lo solicitado. Notificar el presente acuerdo al Concejal Iñigo Iturralde, a la Asociación de Padres y Madres de Baztan Ikastola, y a la Interventora municipal, para su conocimiento y efectos oportunos.

Txaruta Pilota

Iñigo Iturralde Zinegotziak Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazki batean Juanjo Atxa Mindegiak, Txaruta P.Elkartearen izenean egindako eskaeraren berri jakinarazten du. Bertan, "Baztango XXX. Eskuz binakako Txapelketa"ren finala antolatzeke dirulaguntza eskatzen da. Aurrekontua osotara 1.600 euro. Hori dela eta, Iñigo Iturralde Zinegotziak, 430 euroko dirulaguntza ematea proposatzen du. Eskaera ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak Iñigo Iturralde Zinegotziak egindako proposamena onartzea erabaki du. Halaber jakinarazten da, dirua eskuratzeko, lehenik justifikatu behar dela aurrekontuko guztia faktura originalen bidez udal kirol bulegoan eta egindako eskaeran ageri den aurrekontua (1.600 euro) baino gutxiago justifikatzen bada, dirulaguntza murriztuko dela, laguntzaren portzentaje berberak mantentzeko. Akordio hau Iñigo Iturralde Zinegotziari, Txaruta Pilota Elkarteari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.


El Concejal Iñigo Iturralde en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local da cuenta de la solicitud presentada por Juanjo Atxa Mindegia en representación de la Asociación de Pelota Txaruta. En la misma solicita ayuda económica para la organización del "XXX Campeonato de pelota mano por parejas de Baztan". El Concejal Iñigo Iturralde propone conceder una ayuda de 430 euros. Examinada la solicitud la Junta de Gobierno Local resuelve admitir la propuesta del Concejal Iñigo Iturralde y comunicar, asimismo, que para cobrar la subvención deberán presentar en la Oficina municipal de Deportes las facturas justificantes del presupuesto total presentado. Cuando la justificación económica sea inferior a lo previsto (1.600 euros) se practicará una reducción en la subvención, con el fin de mantener los mismos porcentajes de ayuda. Notificar el presente acuerdo al Concejal Iñigo Iturralde, a la Asociación de Pelota Txaruta, y a la Interventora municipal, para su conocimiento y efectos oportunos.

FLORENTINO GOÑI TELLETXEA ZINEGOTZIAK. HERRI LANAK

Florentino Goñi Telletxea zinegotziak Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jakinarazi du, Amaiurko Argineneko bidea konpondu behar dela. Hiru aurrekontu ezberdin eskatu eta gero, Javier Ballarena-ri esleitzea proposatzen du prezio hoberena eskain baitu. Aurrekontua 1500 eurokoa da BEZa barne Proposamena aztertuta eta jakinda 6/2006, Kontratu publikoei buruzko Foru Legeak bere 73.2.c honakoa eskatzen duela Laguntza kontratuetan Balio zenbatetsia, BEZa kontuan hartu gabe 3.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan nahikoa izanen faktura aurkeztea, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du proposamena onartzea. Akordio hau Florentino Goñi Telletxea Zinegotziari, interesatuei eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

El concejal D. Florentino Goñi Telletxea en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local. informa sobre la necesidad de arreglar el camino de Argineneko en Amaiur, dado que ha cedido. Tras pedir tres presupuestos diferentes propone que se haga la obra y se adjudiquen los trabajos a Javier Ballarena por presentar el mejor

[Handwritten signature]



precio. El presupuesto es de 1.500 IVA incluido. Vista la solicitud y teniendo en cuenta que el artículo 73.2.c de la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos establece que en los contratos inferiores a 3.000 euros, IVA excluido, únicamente se exigirá la presentación de la factura, la Junta de Gobierno Local ha resuelto admitir la propuesta. Notificar el presente acuerdo a D. Florentino Goñi Telletxea, a los interesados y a la Interventora municipal para su conocimiento y efectos oportunos.

Eta aztergaietan beste gairik ez dagoenez, Y no habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión a las 12:10 horas, firmando la presente Acta, de lo que yo, el Secretario, doy fe.

12:10ean presidenteak Tokiko Gobernu Batzordea amaitutzat ematen du, akta idazkariarekin batera sinatu, eta idazkariak horren fede ematen du.

ONIRITZIA / Vº Bº
ALKATEA / LA ALCALDESA
Garbiñe ELIZEGI NARBARTE

IDAZKARIA / EL SECRETARIO

